

## BIOGRAFIA en EUSKERA

1901-1918

Bingen Ametzaga Aresti 1901eko uztailaren lehenean jaio zen Al-gortako Bas agoiti etorbideko ;turrieta etxean; zazpi anai-arrebaren artean gazteena. Aira: Pedro Ametzaga Abaroa (1852-1919), enpre-sari eta ahokatua. Ama: María Aresti Sustatxa (1862-1945), Pedro-ren bigarren emaztea. Sabino Aranare kin adiskidetasuna tarteko, Pedro Ametzagak EAJri doan emandako lur saillet an eraiki zen At-gortako Batzokia, Iturrieta ondoan. Manuel eta Ramón anai a nagu-siak bezala, Bingen ere EAJko kide egin zen. Euskara lantzen hasi zen bere kasa, 1953an Antonio Gamarrari idatzitako gutun batean kontatu bez ala: "Erdaldun izan nintzen hamazazpi urteak edo bete arte. Gurasoak bai euskaldunak, baina ñire herrian, Algortan, gure belaunaldian galdu zen euskara. (...) Ekin nion, ba, ikasteari —beti bakar-bakarrik— eta... hemen nauzu ongi ala gaizki euskaldun egina. Arana Goiri izan nuen lehenengo hotsem aile; euskara ikaste-ko gogo eta garra ari zor dizkiot. Gero Azkue haundia ren minaz ger-tatú nintzen ere eta harén liburuetan ikasten ari nintzen behin eta berri. Oroitzen zait behin baino gehiagotan entzuna nagoela Azkueri: "Hay dos personas que saben mejor que yo dos libros míos: Qlabi-de el Diccionario y tú ;a Morfología". Eta gero, badakizu, beti ikasten. Axular rengandik hasi eta aurkitu ditudan liburuak oro irakur-tzen, arkatza eskuan. Lana ez da izan haundiegia zoritxarrez".

1919-1930

Euzko Deya agerkarian 1919an agertu ziren Bingen Ametzagaren lehen idazkia k. Aica, Pedro Ameczaga 1919ko urrian hil zen gripe es-painiarraren eragin ez; hiru hilabete geroago hil ziren baita ere Blanca eta María, Bingenen a hizpa bikiak, eritasun berarekin. Aitaren heriotzaren ondorioz familiaren negozioak gainbehera etortzen hasi ziren. Merkataritza Injinerutza Teknikoko ikasketei ekin zion Binge-nek, sendiaren egoera ekonomikoaz arduratzearen. 1921ean buru-tu zituen ikasketak Bilboko Injineru Eskolan. Euzkadi agerkarian ar-gitaratzen hasi zen 1923an . Valladolideko unibertsicatean Zuzenbi-de ikasketak hasi zituen 1924an, eta hiru urteren buruan amaitu. Hizkuntza haufik ;kasi zituen: ingelesa, frantsesa, latina, greko klasi-koa, ;caliera eta alemaniera.

1931-1935

Errepublikar Koalizioak 1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeetan izandako garaipenaren ondoren, José Antonio Agirrek, Bingen Ametzagak eta beste algortar baczuek Getxoko udaletxearen bal-koian Primo de Riveraren

diktaduraren amaiera eta Bígarrren Erre-publika aldarrikatu zuten. 1932an Ametzaga Getxoko auzo-epaile hautatu zuten, 1935 erre; José Antonio Agirre alkatea, Ametzagaren gaztetako laguna, eta Mari Zabala ezkondu zicuen. Eusko Olerti Egunetan parte hartu zuten 1935-1936 bitartean.

1936

Algortako El Gobela aldizkaria sortu zuen José Olivares Larrondo 7V//figo m'rekin, eta Ramón Ametzaga administratzaile eta argitara-tzailearekin. Legezama Legízamon leinuaren Getxoko etxeko bururute-giaren antolamenduz, kalgaziaz eta zaintzaz arduratu zen. Gerra hasita, Jesús María Leizaola k, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zuzendariak, 1936ko azaroan Lehen Hezkuntzako zuzendaria nagusi izendatu zuen Ametzaga. Abenduaren 4an, 1936ko Estatu-Cuaren babesean aCeak ireki zituen lehenengo ikastola martxan jar-tzeko agíndua eman zuen: Plentziako ikastola. Hala ere, Leizaolak aiturtuko zuen bezala, "beste lan bat izan zen Ametzagaren ardura nagusia, kultura arloan egin zezakeen lana haitio lehenetasun handia-gokoa alegia; izendatu aurrerko asteetan hegazkin alemanek Bilbo eka Areca bonbardatu zituzten, bertan 96 pertsona hilik; hortaz, fun-tsezko ardura bera izan zuen: haurren eskolak eta eskolatuak zeuden umeak bonben arriskutik kanpo l ekutzea".

1937

Ekainaren 14ko goizeko hiruretan, bonbardatutako Areetako parro-kian, ezkondu ziren Bingen Ametzaga eta Mercedes Iribarren Go-rostegi. Ezkondu bezain laster Santanderreko bidean utzi zuen emaz-tea, Juliana Iribarren ahizparekin. Bilbo frankisten eskuetan erortzeaz, Ametzagak ikastolen hustuketari eta eskolaturiko haurren eba-kuazioari ekin behar izan zion, Juan Grazi a sailburuarekin batera. Ekainak 22-24: 500 haur Santanderetik Donibane Lohizunera eram zituen ikatzontzi ingeles batean (hantxe ezkutuan baita ere Joxe Migel Barandiaran eta Justo Garate), eta gero trenez Donibane Garazira.

1938

Jesús María Leizaolak Bartzelonara deiturik, Justizia Saileko idazkari izendatu zuen Ametzaga 1937ko abenduan. Lau hilabetez Katalunian ziren euskal haurren ebakuazioaz arduratu zen. Agirre lehenda-kariaren autoan mugatzen garatu zuen, Paris aldera. 1938ko apiriletik 1940ko ekainera arte bizi izan zen Parisen. 1938ko maiatzaren 7an Mirentxu jaio zen (lehen alaba]. Haur karnamenduetara bidaiak: Liverpool, Cardiff eta Wight irlara.

1939-1940

Bigarren Mundu Gerra hastez bat, 1939ko irailaren 2an Begoña jaio zen (bigarren alaba). 1940ko ekainean, naziak Parisen sartzen ari zirelarik, Eusko Jaurlaritzaren egoitza hustu zuten. Familiarekin trenez abiatu zen Bordelera, Eusko Jaurlaritzarentzat beste egoitza bat aurkitzeko mandatuarekin. Alemanak Bordelera iritsi bezain laster Baionara. Bi alabak eta koinata Miarritzen utzi zituzten.

1941-1942

Marseillara joan ziren senar-emazteak. 1941eko urtarrilaren 15ean Ahina itsasontzian Ameriketarako bidea abiatu zuten. Telesforo Monzonek eta Bingen Ametzagak euskara eskolak antolatu zituzten ontzian. Monzonek poemak idazteari ekin zion eta Ametzagak egiruzen zizkion zuzenketak. Lau hilabetekoa izatekoa zen itsasketa, urte eta erdikoa bihurtu zen; Dakarrera aurrena eta gero Casahlancara; Casahlancatik Quanza itsasontzian La Hahanara; handik azkenean Buenos Airesera, 1942ko apirilaren 16an iritsi ziren. Astebete gero-ago espartin fabrika batean hasi zen kontulari.

1943-1951

Hitzaldiak era prentsan artikulatuak: Euzko Deya, Tierra Vasca, Buenos Air Esko La Nación. 1943ko urtarrilaren 21ean jaio zen Arantza-zu (hirugarren alaba). 1943ko maiatzean Montevideora joan zen Uruguako delegazioaz arduratzeko. 1944tik aurrera FBIren SIS adarreko Basque Intelligence Serviceko Uruguako burua izan zen José Antonio Agirreren agindupean. Errepublikako Unibertsitatean euskara katedra sortu zuen. 1944ko urrian Galeuzca martxan jarri zen Uruguain eta lehendakari izendatu zuten Ametzaga 1945eko otsai-lean. Apirilaren 18an jaio zen Joseba Bingen (laugarren haurra). 1945eko maiatzean Fusko Ikaskuntza Minregia osatu zuen Errepublikako Unibertsitatean. 1946ko apirilean Gernikako Eguna ekitaldia egin zen lehendabiziko Monrevideon eta Euskararen Eguna 1949ko abenduaren 3an (urtero egingo zirenak]. 1947ko maiatzaren 11n jaio zen Xabier (bosgarren haurra). Joxe Mari Lasarteren aginduz, 1947an Oficina de Prensa de Euskadiko (OPE) Uruguako arduraduna izan zen. Manuel Irujoren eraginez 1948an sortutako Asociación de Juristas Vascos ekitaldiaren sortzaileen artean izan zen Ametzaga, Manuel Irujo, Joxe Eizagirre, Juan A. Kareaga eta Xabier Landabu-rurekin. 1948ko eta 1954ko Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusietan parte hartu zuen Uruguako Eusko Ikaskuntza Mintegiko buru gisa.

Eusko Jakintza aldizkariaren administrazio eta banaketaren ardura izan zuen 1948ko azarotik 1951ko apirila arte. 1951n Euskal Kulturaren katedra sortu zuen Uruguako Errepublikako Unibertsitatean.

1952-1954

1945ean euskaratzen hasitako Hamlet (William Shakespeare) 1947ko irailean amaitu zuen, eta 1952ko abenduan plazaratu zion F.kin argitaletxeak Buenos Airesen. Euzko Gogoia aldizkarian Plinio eta Zizeron agertu zituen. Shakespeareren Uda gau bateko ametsa komediarik izan zuten 1952ko urrian bukatu zuen; ordurako lanean ziharduen Macbeth tragediaarekin ere, azken orrazketak 1954ko urrian amaizeko. Tarte horretan, Juan Ramón Jimenezekin baimena lortu eta Platero eta biok argitaratu zuten Montevideoko Florensa & Lafont etxean 1953ko abenduan. Shakespeareren Julius Caesar 1954ko uztailean joko zuen bukatutzat. Uda gau bateko ametsa, Macbeth eta Titus Caesar ez ziren argitaratuak izan. Euzko Gogoia aldizkariak Osear Wiideren The Ballad of Reading Gao! poema luzea plazaratu zion 1954ko neguan.

1955-1969

Caracasera abiatu zen 1955ean. Euzko Etxeko idazkari kulturala izendatu zuten; ardura honetan ikastola proiektuari ekarri zion, gero (1962an) Euzkadi Ikastola izango zena: Ameriketako ikastola "ofizialen" artean lehenetarik oia. Parisko Euskal Bultzatzailea prestatzen jarraitu zuen 1957ko otsailean. Euzko altzain urgazle izendatu zuten 1957an. Nazioarteko Agiritegi Historikoan lan egin zuen 1958ra arte. 1959an Eskiloren Prometeo buruinean agertu zuen Euzko Gogoia aldizkarian. 1960an hasi zen Egan aldizkarian idazten (hantxe plazaratu zuen 1963an Kementsua, bere ipuin bakarra). 1961etik aurrera Boulton Fundazioan ikerlari. Manuel Irujo KAJren "Declaración de Principios" delako agiria idazteko eskatu zion, 1966ko urtarilaren 26an plazaratutako "Euzko Erriari deklarazioa"ren oinarria alegia. Bitartean, euskal etxean euskara eskolak ematen jarraitu zuen, 1967ko urritik irratik bidez emanak. 1968an euskararen alde egindako lanagatik Euskal Jakintzaren Lagunak elkartearen lehendakari izendatu zuten. 1969ko urtarrilean gibeledako minbizia diagnostikatu zioten. 1969ko otsailaren 4an hil zen.